

HOGEGARREN ORDENANTZA FISKALA

AURRETIAZKO JAKINARAZPENA EDOTA ERANTZUKIZUN-ADIERAZPENA BEHAR DUTEN ESTABLEZIMENDUAK IREKI OSTEO KONTROLA AURRERA ERAMATEKO UDAL JARDUERENGATIKO TASA

1. artikulua. Arrazoia eta izaera juridikoa

Konstituzioaren 133.2 eta 142 artikuluek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 106 artikulua, Bizkaiko Lurralde Historikoko Ogasunei dagokien ekainaren 30eko 5/1989 Foru Arauan emandako eskumenak erabilia, Udal honek tasa hau ezarri du: aurretiazko jakinarazpen erregimenaren menpe dauden jardueren kontrola egiteko udal jarduerari dagokion tasa. Tasa horrek Ordenantza Fiskal honetan ezarritakoari jarraituko dio.

2. artikulua.- Zergapeko egitatea

Tasaren zergapeko egitatea barne hartzen du kontroleko udal jardura teknikoa eta administratiboa, eta baita ere, subjektu pasiboak aurretiaz adierazitako eta aitortutako baldintzen egiaztapena, zeina jarduerari hasiera eman ondoren egingo den, modu horretan egiaztatu ahal izango baita, ea aurrera eramandako adierazi zen jarduerak, edo aurrera eraman nahi denak betetzen dituen, jarduerak egitera destinatutakoak diren eraikin, lokal, instalazio eta eremu libreei aplikagarri zaizkien hirigintzako arautegia, hirigintzako planeamendua eta udal ordenantzak, horren garapenerako aipatu tramitazioa obligaziozkoa denean, eta baita ere borondatezkoa izan daitekeen beste haietan, eta baita handitzeak, erabilera aldaketak eta beste jardueren gehitzeak diren haietan ere, eta hori egingo da, baldin eta jardura berria ez baldin badago Jardura Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren kode berean barne sartuta, eta baldin eta ez balu jardueraren kalifikazioan aldaketarik ekarriko. Hori guztia administrazioak esku hartzeko duen eskumenera arabera, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 84. artikulua emanak, horrek arautzen baititu toki erregimeneko Oinarriak.

Udal jardura hori subjektu pasiboaren aurretiazko adierazpenaren ondorioz sor daiteke, edo ikuskapen jardueraren ondorioz, adierazi ez diren jardueren existentzia egiaztatzen den kasuetan, edo egindako aurretiazko adierazpenak bere osotasunean babesten ez dituen kasuak antzematen direnean.

3. artikulua. Sortzapena eta ordaintzeko obligazioa.

Tasa hau zergapeko egitatea osatzen duen udal jarduerari hasiera ematen zaionean sortzen da eta orduan jaiotzen da ordaintzeko obligazioa. Ondorio horietarako, hasiera, jardura hasteko aurretiazko komunikazioaren idatzia aurkeztutako datan, eman zaiola ulertuko da, adierazitako jardueren prozedurarako Udal Ordenantzaren eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.bis artikuluan ezarritakoaren arabera.

Halaber tasa sortuko da:

3.1.- adierazitako jardueren prozedurarako Udal Ordenantzaren ezarrita dagoen arabera, jardura edo instalazioa aurretiazko adierazpena aurkeztu gabe garatzen direnean, edo garatutako jardura adierazitakoa ez denean, eta Udalak ikuskapen jarduerak burutzen dituenetan, eta horien ondorioz, garatutako jardura pribatua aurkitu eta egiaztatzen badu.

3.2.- Dagoeneko martxan dagoen jardura baten izen-aldatzea izapidetzen denenean.

Zerga ordaintzeko obligazioa jardura gara daitekeen lokal bakoitzean sortzen da, aurretiazko komunikazio eta aitorpen arduratsuen prozedurara lotutako jardura egiten den bakoitzean (fabrikak, tailerrak, bulegoak, dendak, biltegiak eta edozein motatako lokalak).

4. artikulua.- Subjektu pasiboa

Tasaren subjektu pasiboak dira, zergadun kontzeptuan, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergari buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikulua aitpatzen dituen pertsona fisiko eta juridikoak eta Erakundeak, aurretiazko komunikazioaren edo aitorten arduratsuaren bidez Udalari horren berri eman beharra daukatenen jarduera garatzen dutenek.

Edozein kasutan, zergadunaren ordezkio izaera hurrengo hauek izango dute, hots, Udalaren aurrean aurkeztutako aurretiazko komunikazioaren titular eraikitzaileak.

5. artikulua.- Salbuespenak.

Leku aldaketak eta irekitzeak tasaren ordainketatik salbuetsiak egongo dira, baldin eta horiek hondamen-aitorpenaren, berehalako hondamenaren, desjabetzearen, hondoratzearen, sutearen, kaleratzearen edo epai irmoaren ondorioz badira, eta horren arrazoia ezin bazaio jardueraren titularri egotzi, eta beti ere, jarduera beraren leku aldatzea edo berreraikitzea bada.

6. artikulua.- Kuota.

1.- Aplikatu beharreko tarifa orokorra honakoa izango da:

A) Establezimenduko 200 m ² -rainoko azalera (m ²)	7,50
B) 200 m ² -tik kanpo dagoena. Establezimenduko 1.000 m ² -rainoko azalera (m ²)	5,70
C) Establezimenduko 1.000 m ² -ko azaleratik kanpo dagoena (m ²)	4,80

2.- Zerga kuota ez da 10.203,00 €-tik gorakoa izango inoiz, hori gehieneko kuotatzat joko dela.

2.- Zerga kuota ezin izango da 215,00 €-tik beherakoa izan inoiz, hori gutxieneko kuotatzat joko dela.

3.- Ordenantza honetan aurreikusitako denboraldiko establezimenduek kuotaren 117,42 €-ko tarifa finkoa izango dute, haien jarduerak ondoz ondoko hiru hilabete baino gehiago hartzen ez baditu; bestela, kuota osoa ordainduko dute.

4.- Jardueren izen-aldaketak izapidetzen direnean, tarifa orokarra aplikatuko da.

7. artikulua. Likidazioa.

Tasa Udaleko Ekonomia Zerbitzuek ordainduko dute edozein unetan, aurretiazko komunikazioko idazkia aurkeztu ondoren.

Likidatu beharreko zenbatekoa zehazteko, eskaeraren eta/edo komunikazioaren unean eskalako planoa aurkeztuko da, adituak egindakoa, lokalaren azalera egiaztatze modu gisa. Dokumentu hori ez badago, Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 51.2 artikuluan xedatutako zeharkako zenbatespena aplikatuko da.

Tasa autolikidazio araubidean eskatu ahalko da.

8. artikulua- Itzulketa

Behin ordaintzeko obligazioa sortzen denean, ez du inolako eraginik izango subjektu pasiboaren uko egiteak edo atzera egiteak, egiaztapenak egin ondoren, adierazitako jarduerak diren kasuan.

Baldin eta atzera egitea, Udalak egiaztapen-jarduerari ekin aurretik, egiten bada, tasaren zenbatekoa osorik itzuliko zaio zergadunari. Horrela izango ez balitz, ez da inolako zenbatekorik itzuliko.

Edozein kasutan, tasaren itzulketa egin ahal izateko, subjektu pasiboak esan bidez eskatu beharko du hori.

9. artikulua.- Urraketak eta Zerga Zigorak.

Zerga urraketen kalifikazioari dagokion guztian, eta kasu bakoitzean horiengatik jarri daitezkeen zigorrak zehazteari dagokion bezainbatean, Zergari buruzko Foru Arau Orokorrean eta Gestio, Bilketa eta Ikuskapeneko Zerga Ordenantza Orokorrean, eta hori garatzen duten gainontzeko xedapenetan araututako erregimena aplikatuko da.

Amaierako xedapena

Ordenantza hau behin betiko onetsia geratzen da 2010ko urriaren 04an, eta 2011eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da, hori aldatu edo indargabetzea erabaki arte.

(Udalbatzaren erabakiz aldatua 2012eko azaroaren 19a, 2014eko urriaren 30ea, 2017ko urriaren 26a, 2018ko urriaren 25ea, 2019ko urriaren 30ea eta 2021eko urriaren 28a osoko bilkuran.)